



PRESA GARBIKETA

Xabier Olaskoaga

2001 garren urteko Apirillaren “LAU AIZETARA” aldizkarian leiaketa baterako gai izanik, idazlan ontan azaltzen dan argazkia zegoen eta berak nere umetako oroipenak bururatu zizkidan. Oroipen aiek aurtengo “OARSO” urtekarian azaltzen ausartu naiz eta or dijoaz asmo onez beterik, zerbaitetarako baliagarri izan ditezen.

Argazki orretan ikusten dezutenez, itzai bat daukazute idi parearen aurrean, tramankulo batekin, beste laguntzaile bat atzean prest dagoela, Fanderiako errotak soberan zituen urak eta joaten ziran urbidean presa garbitzeko lanari ekiteko.

Lan au aspalditik egiten zan orain dala bost urte arte eta azken urte auetan ere bein edo beste egin izan da, Papeleraren kontura izanik lan onen ordainketa, bertako urak garbiak egon beirak izaten baidira.

Baiñan jakin dezagun nolatan eta noiztik diran urbide (canal) onen jaiotza eta berriak. Ikerlariak lan asko egiñak dira beronen nagusi dan Fanderiatz. Liburu eta idazlanetan datu asko azaltzen dira, baiñan

nik xume-xume eta asko laburtuaz azalduko dizkizuet: 1.476,ko urtera doaz, ikerlariak diotenez, Fanderian burniola (ferreria) zanian; 1.542 aldean presa egin zan bertarako urbidea egiteko; 1.749 garren urtean aingurak (ancla) egiteko fabrika bat egin zan orduko erregearen aginduz, 1.769an burniolak aingurak egiteari utzi eta burni ijasketako (laminación) lanak egiten jarraitu zuten.

Ba liteke burniola-lanak urte aietako frantziarren inbasioa egon ondoren amaitu izana, zergatik 1.808 garren urtean bertan, bizitzen baserritar bat azaltzen da.

Urte batzuetako berriak ez ditut arkitu, baiñan ematen duanez, eunkada orretan bertan, irin errota-ko lanak egin zirala azaltzen da.

1.954 urte arte Londaiz, Ubarrechena y Cía. egon ziran, gero 1.985 arte La Fandería S.A. (Iragarkietan erabiltzen zuten gaia oso ezaguna egin zan (Fanderiako pentsuak ez merkeenak, bai onenak) eta azkenik. Piensos Compuestos Orereta S.A.L., 1.996 go Abuztuarte iraun zuena.

Gero ballara berria egiteko beste era batera gelditu dira Fanderia eta bertako inguruak. Etxe pilla, etorbide ederak, ibilbideak, Kirol lekuak eta abar.

Eta ikusi dezagun nola dagoen oraingo urbidea eta nolakoa zan lengoa.

Oiartzun ibaiarekin baliatzen da bertan presa bat dago. Topoko bide zubiaren (viaducto) ondoan urbidearen asiera dago, "urate" (compuerta) seinatzen du. 350 m. inguru daude asieratik Fanderiako errotaraiño eta bide orretan ere iru urate ageri dira, len burniola eta errota bezela zegozten tresnak mugiarazteko bear zun ura gertatu zedin.

Presa garbitzailleak agertzen diran lekuan urbidearen bigarren zatia da eta 800 m. koa da, gutxi gora-bera (orain zatirik **geiena / aundierna** desagertu da) Londaiztarren bertan lorategi eder bat zegoen eta oraindik bizirik dagoen magnolia bat ezaugarri dala, aurrera jarraitzen zuan Oiartzun ibaiarekin paralelo bat egiñaz.

Oraingo bailarako etxe, ibilbide eta kirol lekuak, baratzez beteak arkitzen ziran bertako urak barazki eta fruituari mesede ugari egiñaz.

Orain Ertzaintzaren koartela dagoen lekuan V. Luzuriaga (lenago José de Orueta) altzeirua egiteko fabrika zeukan, eta parean Papeleraren (orain ere bertan dago) presa, urbidearen ur geiegia jasotzen duen lekua. Aurrera goaz eta bertan Santa Klara Plazan (orain S. Mujika) garbi leku bat zegoen (urbideko urak oso garbiak iristen baiziran), eta Santa Klararen ermitatxoa, 1.933 ugoldean desagertu zana. Zubitxo txiki bat zegoen (1958 aldean) orain Matxain denda dagoen etxearen eta aldamenean zegoen perratokiaren tartean. Jarraitzen zuan Fabrika Aundiko (T. de Lino) sarrera arte. 100 bat metroko bide tarte orretan espartañantzako tela egiteko fabrika bat zegoen (Gero Micheru izana, taller mekanikoa), eta gurdi karroillek beste taller bat zuten ondoan.

Azken zati oneri guk Shamakoerreka esaten genion eta orrela eza gutzen zan Errenteritarren artean.

Urek fabrika batetik bestera igaro ondoren, zumardian zear jarraitzen zuten eta lurpeko txikiagoa izanik Gamongo zumardia batetik besteraiño pasatzen zuan etxen kontra zegoen bidetik Fernandez de Landan papelera etxetik eta lengo matadero zarra (orain lorategia) urek eramana Lezora dijoan zubipean eta Pontikatik datorren urbidera azken urak



Hemendik Dolores Ibarruri zumardiraino, Fanderia Etorbidearen eta Vicente Cobberos kalearen azpitik jarraitzen du

Foto: Jesús Hospitaler



Foto: Jesús Hospitaler

Errotan sartu baino zertxobait lehenago

eramanaz eta bukaturik Fanderiako erreka ibillera.

Eta au dala-ta, emen datorkigu gure presa garbitzearen egintza. Fanderiak geiegizko urak izanik 1.858 garren urtean, Fabrika Aundiarekin itun bat ziñatu zuan bertako Eusebio Garbuno jabearekin, bertako urak ain garbiak izanik, berauek erabiltzeko baimena lortzeko. Izarak eta oialak garbitu ondoren, zelaietan zabalduaz txuritasun artzen zuten.

Argaitik ura fabrikatik pasatzen zan, (gogoan daukat fabrikako langilleak nola gurdietan eramaten zituzten Fanderiako zelaietara eguzki dizdira jasotzea).

Era berean, Papelerak 1.931 ko Uztaillaren 2 an beste itun bat ziñatu zuan Cesarea Garbuno, Londaizen alarguna (Fanderiako jabea) urataz baliatu al izateko. Auek presa bat ipiñi zuten oraingo ertzaintzaren kuartel parean, sobratako ura "Accelerator" batera bidaltzeko eta fabrikako bearretarako izango zana.



Foto: Jesús Hospitaler

Oiartzun ibaiko ur-hatunea

Eta bi fabrika auek beti erabiltzen zuten ura garbi izateko orduan, eta oraindik ere presa garbitzeko erabakia artu zuten urtero ekintza au egiñaz.

Garbiketa au urbidean biltzen ziran zugaitz adar eta zaborrak biltzeko izaten zan, urak beti garbi izateko; asierako urateak itxi eta legor antzean gelditzen zan. Ekintza au Abuztu erdi alden egiten zan, asieratik Fanderiraño zati bat, eta bestea Fabrika Aundiraiño.

Oroitzapenez betetako ekintza izaten zan urbidea oso-rik egondu zan bitartean: egun aietan itzaiak eta idiak ekintza-aren aurren pertsonaiak izaten ziran, lanean ikusten genitunean, erreka bazter eta ormetako zirrikietan aingira eta eskallu ugari irtetzen baiziran. Bañan Fabrika aundia 1.973 garren Martxoan eta Shamakoerreka-ko ur zatia desagertu egin ziran eta urbidea Papelerako presan amaituta gelditu zan.

Eta azkenik, ikusi dezagun nolatan gelditu dan Fanderiako urbildu ori eta bertan ziraden baratzak, bertan egin dan baillara orain etxe, ibilbide, kirol leku eta abarrez orniturik gelditu ondoren.

Martxoaren 15 a zalarik, goizez, nere adiskide Atana Arruabarrenarekin gai dabilkigun urbidearen sorrera non ote dagoen ikustaldi bat egitera joan giñan zergaitik naiz eta orain gai au erabilli, beñere ikusi gabea neukan, eta gainera nere lagunak dato asko dakizki gai ontaz, Papeleran lan egiten bai du.

Eta asieratik lenengo ustekabe alai bat izan nuen: Topoko bide zubiaren azpian, bere asiera dagoen lekuan, urate bat agertzen da, eta arritzekoa da urteetan zear ordoiak bere lana egin ondoren, garbi azaltzen dala non egiña zan: "BRAULT TEISSET & GUILLER. (Paris Chartres)" izena ezaugarri duela.

Asiera au ezaguna zan aspaldian garbiketarik egin gabe zegola eta zugaitz adar eta ostoz bete. Beste bi urbide daude Fanderia etorbidearen amaieran, orain Villa María Luisa lorategi etxera egindako zubi ondoan; beste urate ustubidekoa (sobradero), Dolores Ibarruri zumardi bukaera aldera au, urbidea 50 metro inguru estalita dagola; Fanderia errota atarian beste iru urate azaltzen dira, auek ere Parisen egiñak, eta bertan lengo Fanderiako burniola eta errota egondako lekuan bere aiñarriak bertan dagoztelarik, denbora bateko tresnak eta tramanku-



Hemendik aurrera lur azpitik jarraitzen du Oiartzun ibaira irteten den arte (Santa Klara zubitik hurbil)

Foto: Jesús Hospitaler

luak, berrituta, ondorengoak jakin dezaten nolakoa zan lekua. Oraindik naiz oso osatua ez egon, museo eder ikusgarri bat egin dute.

Errotatik irteeran presa garbitzailearen bigarren zatia asten da eta 100 bat metroan agerian dago oraindik, beti izandu zan eran. Bere zugaitz (Magnolia) Londaiztarren lorategia zegoen lekuko aztarna batzuek bertan ur garbia bertan errekatxo polit bat dalarik, eta Dolores Ibarruriren zumardia asten dan lenengo etxean lurperatzen da, eta orretan igarotzen ditu azpitik Papelerako presa bitarteraiñoeko etxe berri, kirol leku, ibil bide eta Futbol Zelaia.

Eta onela amaitzen det nere idazlan au, asmo onez egiña eta oroi-tzapenez betea. Zer edo zerbaitetarako balio baldin badu, neretzat poza izango da.

Emen erabilli ditutan datu asko “La Pequeña Manchester “ Miguel Angel Barcenillaren liburutik jaso ditut eta beste ainbat M. Mercedes Urteaga Artigasek (Arkeolan Ikasketarako Zentroa) Fanderiari buruz egindako ikerketatik. Berauei nere esker onena azaltzen diet berarekin lan au egiteko bear izan ditudan xeetasunak ain garbi arkitu ditudalako.

Ba dakit datu batzuek ere askok jakin izango dituztela eta nik emen azaldu ez izanak eta nere utsegiteak ez dira asmo txarrez egiñak izan. Barkatu alakoak izan ba dira.

Agur eta datorren urteraiño, Jainkoak nai ba du.

2001 – 5 – 25



Foto: Jesús Hospitaler

Bi eraikinen artetik bideratuta zihoan fabrikari sartu arte